

Gure enpresaren diru iturri nagusia salmentetatik datorrena da, hau da, Doorphone aplikazioaren instalaziotik datorrena. Sistema bere osotasunean instalatzearen prezio unitarioa 200 eurokoa da. Beraz, gure diru sarrerak egindako salmenten arabera izango dira. Aurreikusten ditugun salmentak 5000 inguru dira urtean. Beraz, urteko gure diru sarrera totalak 1.000.000 eurokoak izango lirateke.

Beste bide batzuetatik ere lortuko ditugu irabaziak. Hala nola, diru-laguntzak publikoetatik.

- https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=6fb4580d_120559d4df3_7ff9 (Gasteizko udala)
- <https://ajebask.eus/beneficios/> (Ajebask)

Diru-laguntza hauen kantitate totala 350.000€koa izango da.

Beraz, gure sarrera totalak 1.350.000-koak dira.

Bezeroek gure zerbitzua ordaintzerakoan, erosotasun guztia izan dezaten nahi dugu. Hori dela eta, ordainketa sistema anitza onartzen dugu: Esku-dirua, kreditu-txartela, PayPal eta transferentzia bidezko ordainketak.

Gainera, bezeroei erraztasun handienak eman nahian, berain etxera goazenean sistemaren instalazioa egitera, bezeroak nahi izango balu, bertan egingo genuke ordainketaren prozesua. Datafono bat eramango genuke txartelarekin ordaindu nahiko balu bezeroak eta PayPal-eko kontua eukiko genuke. Esku-diruan ordaintzea nahiagoko balu, sistema instalatzera doazen langileek gordeko lukete eta enpresara itzultzean dirua utzi enpresako bulegoetan. Edozein kasuetan, zerbitzuaren faktura etxera bidaliko zaie.

Momentuan ordaintzeko arazoak dituzten bezeroentzat, epeka ordaintzea ere onartzen dugu, beraien behar eta nahietarako egokitutako finantzazioa finkatuz (20 euro 10 hilabeteetan, 10 euro 20 hilabeteetan,...) .